

BIRIGARRUA

Ipuiña

Birigarro bat bizi
 zan kayol batian
 ezeren faltik gabe
 ase ta betian;
 nola chikiya zala
 zan au achitua,
 kayola ortan zegon
 bizitzen oituba;
 baña griñā izanik
 beti kamporako
 esaten zuben:—¿Nigan
 ez alda etorko
 egun bat kayoletik
 joateko kanpora,
 nai badet jachi non nai
 edo igo gora?
 bai, kayola urratzen
 bear det nik asi,
 joan nediyen segiran
 emendik igasi;
 ja zer egun gozua
 izango detana
 igas egiñik libre
 arkitzen naizena!
 Au pentsaturik, gogor
 asi zan mokoka,
 kayolaren zumitzak
 indar aundiz joka;
 ta aiñ gogoz lanari
 nola ziyon ekiñ,
 laister zuben zulua

bere diña egiñ,
 eta chiruliruka
 abiya zan egan
 jbañan naigabe char bat
 sortu zan beregan!
 nola chikitatikan
 etzuben egatu,
 eziñ zan iñolako
 modutan moldatu;
 eta joan bearrian
 zuzenian gora,
 zalaparta biziyan
 erori zan beera.
 An zebillela igeska
 bein salto, bein egan,
 alakorik batian
 sartu zan bodegan
 eta katu zar batek
 nola zegoan erna,
 achiturik kolpian
 jan ziyon laurdena.

Birigarruen gisa
 zenbait-cho mirabe,
 alde egiñik orla
 ibiltzen dirade.
 Askoz obea baita
 eche ezaguna
 eta ez ametsetan
 pentsatzen deguna.

JOSÉ ARTOLA.